



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAREN EUSKAL BATZORDEAK 2015EKO
APIRILAREN 13AN EMANDAKO EBAZPENAREN AURKA ORDIZIA KIROL
ELKARTEA-SASKIBALOIAK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO
ERREKURTSOA GAITZESTEN DUENA.**

Esp.-zk.: 14/2015 Berraztertzeko errekurtsoa

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2015eko maiatzaren 13an, Ordizia Kirol Elkartea-Saskibaloiak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordeak 2015eko apirilaren 13an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, gaitzetsi egin zen aipatu klubak Saskibaloiko Euskal Federazioaren Apelazio Batzordearen 5. epaiaren aurka jarritako errekurtsoa. 2015eko otsailaren 19an eman zen epaia, Getxoko Saskibaloit Taldeak federazio horren lehiaketa batzordearen 2015eko otsailaren 4ko ebazpenaren (50. epaia) aurka jarritako apelazio-errekurtsoa onartzen zuena. Aipatu epai horren bidez, hain zuzen ere, Getxoko Saskibaloit Taldea zigortu zen saskibaloit-partidu batean agertu ez izanagatik. Ondorioz, topaketa 20-0 puntuazioarekin galdu zuten, puntu bat galdu zuten eta 600,01 euroko isuna jarri zitzaion, 20 eta 42.A) artikuluetan jasotakoarekin bat etorriz, Diziiplina Araubidearen Arautegiko 30 eta 31 artikuluetan aurreikusitakoarekin lotuta.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak erabaki zuen izapideko onartzea berraztertzeko errekurtsu hau. Horren berri eman zitzaion Getxoko Saskibaloit Taldeari, egokitzen jotzen zituen alegazioak egin zitzaion. Izapide hori gauzatu du, 2015eko maiatzaren 21ean alegazioen idazkia aurkeztu baitu.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Kirol Justiziako Euskal Batzardeak du esku hartzeko eskumenik, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 138.a) artikulua (106.2 artikuluekin lotuta), Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuko 3.a) artikulua.

BIGARRENA.- Ordizia klubak jarritako berraztertze errekurtsoak funtsean Saskibaloiko Euskal Federazioaren Apelazio Batzardearen epaiak errekurritutako arrazoi berberak azpimarratzen ditu. Horien oinarria aztertu baino lehen, gogora ditzagun espediente honetan eman diren ebazpenak eragin dituzten gertaerak.

a) 2015eko urtarrilaren 31n, 18:00etan, aurreikusita zegoen Biok Zerbitzuak Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloien (aurrerantzean, Ordizia kluba) eta Getxo Saskibalo Taldearen (aurrerantzean, Getxo kluba) Gizonezkoen Lehen Mailako partidua egitea.

b) Getxo kluba ez zen bertaratu partidu hori lehiatzera, arbitroaren aktan jasotzen den bezala, eta Saskibaloiko Euskal Federazioaren Lehiaketa Batzardeak 50 zenbakiko epaia eman zuen 2015eko otsailaren 4an. Horren bidez erabaki zuen Getxo kluba zigortzea saskibalo-partidura bertaratu ez izanagatik (topaketa galdu zuten 20-0 puntuazioarekin, puntu bat galdu zuten eta 600,01 euroko isuna jarri zitzaion), hori dena Diziplina Araubidearen Arautegiko 20 eta 42.A) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, testu horren 30 eta 31 artikuluekin lotuta. Ebazpen horretan adierazten da apelazio-errekurtsoa jartzeko aukera dagoela, eta horretarako 4 egun balioduneko epea egongo dela, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita.



c) Getxo klubak ebazpen horren aurkako errekurtsua jarri zuen Apelazio Batzordean (2015eko otsailaren 11n), eta horren bidez eskatu zuen ebazpena baliogabetez; batetik, prozedura urratzeagatik, ez baitzitzaion entzunaldi-izapidea egiteko aukerarik eman, eta, bestetik, barruko gaiengatik, hots, partidua jokatzerara etorri ez izanaren arrazoiengatik. Gauzak horrela, alegatu du ez zirela bertaratu Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan alerta meteorologikoa iragarrita zegoelako, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak eta tokiko administrazioek emandako gomendioei jarraikiz, partidura ez joatea erabaki zutelako. Horrenbestez, ezinbestekak bultzatutako arrazoiak ditugu tartean, eta arautegian aurreikusita daude.

d) Getxo klubak eginiko alegazioak aintzat hartuta, Apelazio Batzordeak 5 zenbakiko epaia eman zuen 2015eko otsailaren 19an. Horren bidez, errekurtsua onartu eta Lehiaketa Batzordeak emandako epaia baliogabetu da. Hori dela eta, kontuan hartuta bat datorrela Arautegi Orokorraren 179. artikularekin, Getxo kluba partidura joan ez izana behar bezala justifikatzen duen arrazoi dago oinarrian.

e) Epaia hori ikusita, Ordizia kluba ez zegoenez ados emandako arrazoiarekin eta Apelazio Batzordearen epaiarekin, zegokion errekurtsua jarri zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordean, baina gaitzetsi egin zen 2015eko apirilaren 13an hartutako erabakiaren bidez. Hain justu horrek eragin du berraztertzearen errekurtsu hau aurkeztea.

HIRUGARRENA.- 2015eko apirilaren 13ko erabaki horren bidez, eta Ordizia klubak jarritako errekurtsua gaitzesteko oinarri gisa baieztatu genuen behar bezala arrazoituta eta justifikatuta zegoela Saskibaloiko Euskal Federazioaren Apelazio Batzordeak hartutako erabakia.



Hala, onartu genuen Saskibaloiko Euskal Federazioaren Arautegi Orokorraren 179. artikulua aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla. Honako hau adierazten du artikulua horrek: "*Partidu bat bertan behera geratzen bada talde lehiakideetako bat bertaratu ez izanagatik, eta **Diziplina Batzordearen ustez behar bezala justifikatuta badago bertaratu ez izanaren arrazoiak**, federazioetako organo teknikoek berriz ere antolatuko dute partidua. Elkarte hark hartuko ditu bere gain hasiera batean aurkeztu den taldeak joan-etorrietarako egin beharreko gastu berri guztiak, arbitrajearen gastuak eta partidu berriak ekar ditzakeen bestelako gastuak.*

Honako datu hauek garrantzitsutzat jotzen ditugu bertaratu ez izana behar bezala justifikatzeko: Euskadiko Saskibaloiko selekzioen entrenamenduak bertan behera geratzea; Euskalmetek alerta laranja eta horia dagoela adieraztea; Ordiziako Udalak berak edo Getxo klubak jakinaraztea Saskibaloiko Euskal Federazioari arrazoi meteorologikoak tarteko partidura bertaratzeko asmorik ez dutela.

Horri gaineratu behar diogu Batzorde honek nahitaez jakin behar duela Administrazio-uzietako auzitegi nagusiaren eta Konstituzio Epaitegiaren (horiek guztiak 1996 apirilaren 17ko ENSrenak-1996/3564 JE) jurisprudentzia dela zigor arloan eta berau osatzen duen kirol-diziplinan zenbait ñabardurarekin aplikatzea zuzenbide penalean indarrean dauden printzipioak; horien artean, "in dubio pro reo" eta "erruduntasuna".

Halaber, gogorarazi nahi dugu diziplina-organoen bete beharreko helburuetako bat dela lehiaketa normaltasunez egiten dela bermatzea, eta horretarako "pro competicione" printzipioa aplikatu behar dela.



Aipatutako arrazoi guztiek sobera bermatzen dute zuzenbidearekin bat datorrela Saskibaloiazen Euskal Federazioko Apelazio Batzordeak 2015eko otsailaren 19an emandako ebazpena.

LAUGARRENA.- Berraztertzeke errekurtsuan, Ordizia klubak 2015eko apirilaren 13an hartu genuen erabakiaren baliogabetzeari eusteko baieztatu zuen espedientetik erretiratu egin behar dela Saskibaloiz Federazioko Apelazio Batzordeak eginiko txostena, ez duelako sinadurarik; eta, bigarrenik, berriz aipatu du Getxo kluba bertaratu ez izanaren arrazoia ez zela justifikatua izan Arautegi Orokorreko 226. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ordizia klubak erabilitako lehen argudioan adierazi du espedientean Apelazio Batzordeak eginiko txostena kentzeko, ez dagoelako sinatuta eta alegazio hutsala delako. Batetik, idazkia federazioaren administrazio-espedientearekin datorrelako, eta, beraz, ez dagoelako arrazoirik egiazkotasuna zalantzan jartzeko, eta, bestetik, azken batean hori erretiratu arren, aztertzeke dagoen kontu juridikoa delako aztertzea ea Getxo kluba programatutako partidura bertaratu ez izana justifikatzen duen arrazoirik dagoen.

BOSGARRENA.- Bigarrenik, eta dagoeneko gaiaren funtsari heltzeko, Kirol Justiziako Euskal Batzordean Ordizia klubak Apelazio Batzordearen epaiaren aurka jarritako errekurtsuan emandako argudioak azpimarratu ditu.

Gauzak horrela, azpimarratu du Ordiziara iristeko erabili beharreko bideak ez duela inon ere gainditzen 300-400 metroko kota (elurra egiteko aukera kota horietarako eman zen), bertan behera geratu ziren Euskadiko selekzioaren entrenamenduak otsailaren 1erako (igandea) programatuta zeudela eta federazioak bere horretan utzi zuela asteburu horretarako programazioa, ez direla egiaztatu Ordizia elkarteari telefono-deiak egiteko saiakeren baieztapenak, Saskibaloiko Euskal Federazioak ez duela ekintzarik



larunbatean, eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Kudeaketaren buruak gomendu zuela joan-etorriak baztertzea, baina ez zituela debekatu.

Bada, adierazitako ezerk ez du balio batzorde horren irizpidea aldatzeko oinarri gisa; izan ere, beste behin errepikatuz, espedientean jasotako dokumentazio guztia aintzat hartuta -hau da, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Kudeaketaren buruak joan-etorriak ez egiteko gomendatzeko eginiko txostenak; Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak aktibatutako alerta meteorologikoak; Ordiziako Udalak berak emandako informazioaren ondorioz aktibatutako uholdeen arrisku laranjaren alerta; Eibarren egitekoak ziren Euskadiko selekzioaren hainbat kategorietan aurreikusitako entrenamenduak bertan behera geratu izanaren gertaera eztaba daezinari dagokiona; Saskibaloiko Euskal Federazioak bidalitako twitterraren bidez telefono-zenbaki bat adierazi izana asteburu horretan egin beharreko joan-etorrietan gorabeherarik egonez gero eurekin harremanetan jartzeko, Getxo elkarteak egin zuen bezalaxe-, justifikatuta dago Getxo kluba partidura bertaratu ez izana.

Eta horri guztiari gaineratu behar dizkiogu hasieran eginiko "pro competicione" apelazioak, bai eta zigor-ahalmenaren esparruan indarrean daudenak ere, 2015eko apirilaren 13an hartutako erabakian adierazitako baldintzei jarraikiz.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

Gaitzestea Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloiak Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen 2015eko apirilaren 13ko erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtoa. Aipatu erabakiaren bidez, gaitzetsi egin zen Ordizia Kirol Elkarte-Saskibaloiak 2015eko otsailaren 19an Saskibaloiko Euskal



Federazioko Apelazio Batzordeak emandako 5. zenbakiko epaiaren aurka aurkeztutako errekurtsua.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 10a

José Ramón Mejías Vicandi
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea